



4. GAIA


MASAREN IRAUPENAREN LEGEA: MASA-BALANTZEAK

ARIKETAK

4.1

Kafe disolbagarri instantaneo lortzeko, irudiko prozesua egiten da. Kafe-aleak xeheak, disoluzio-ganbaran ur-beroarekin disolbatu egiten dira, bi korrante eratuz: (1) *zati disolbagarria*, W eta S osagaiez osatuta (masa eran: %35 S eta %65 W); (2) *zati solidoa*, W, S eta E osagaiekin. Disoluzio-ganbararen etekina %75ekoa da (kafearen osagai disolbagarriaren %75 disolbatzen da).

Zati solidoa iragazi egiten da, bi korrante berri sortzen direlarik: (1) *zati disolbagarria*, W, eta S osagaiez osatuta (masa eran: %35 S eta %65 W), disoluzio-ganbaran lortutako zati disolbagarriarekin nahasten dena; (2) *hondar solidoa*, osagai disolbaezinak eta urak osatzen duten nahastea.



Zati disolbagarri guztiak batu ondoren, spray formako lehorgailura elikatzen da, bertan, ur guztia lurrundu eta "kafe disolbagarri instantaneo" hauts moduan lortzen delarik.

2 Tona/egun kafe disolbagarri instantaneo lortzeko kalkulatu ezazu:

- Prozesura elikatu behar den uraren emari masikoa.
- Hondar solidoaren emari masikoa.

4.2

Itsas-ur gazia gezatzeko, kontrako osmosia erabili daiteke, irudian agertzen den legez. Kalkulatu ezazu:

- Kanporatzen den ur-gaziaren emaria.
- Lortzen den ur-gezaren emaria.
- Birziklazioa/kanporatzen den emarien erlazioa.

